

**GIZARTE ZERBITZUAK,
KONPONBIDEAN**

**KONPROMISOA
PARTE-HARTZEAREKIN**

**PRESOEN FAMILIENTZAKO
DIRU-LAGUNTZAK AUZITAN**







EUSKAL HERRIA PLAZA

Harrobiaren lehen topaleku

Sugandilak bezala. Eguzkia ateratzea-
rekin batera, hurrez eta gurasoz be-
tetzen da garai honetan Euskal Herria
plaza. Leku ezin hobea da, eskolatik
irtetean hurrek merienda hartzeko
eta eguneko energia kupotik geratzen
zaiena, kulunka eta txirrista artean
gastatzeko. Hor hartzen dituzte lehen
kolpeak eta hor egiten dituzte lagun
berriak.

Aurreko proiektuan hori ez zen posible
izango, plaza ez baitzen batere ego-
kia haurren jolasetarako. Plaza berri-
tu behar zen, bai, baina, diseinua zehaz-
teko gurasoen iritzia kontuan hartu on-
doren. Hala, gurasoekin bildu ostean,

zuhaitzak jartzea eta hasiera batean
aurreikusita zegoen kioskoa kentzea
erabaki. Emaizta ikusita, zalantzarik ez
dago merezi izan duela, nahiz eta uste
baino diru gehiago joan zen horretan.
Baina dena al da berria plazan? Ez.
Akaso baten batek igarriko zion par-
kean dagoen bidexkako galtzada-ha-
rriak zahar xamarrak direla. 100 urtetik
gora dituzte. Garai batean udaletxeko
plazan egon ziren, kendu, eta bazter
batean pilatu zituzten arte. Udalak harri
horiei duten balioa eman nahian Euskal
Herria plazan jartzea erabaki zuen. Be-
raz, hortik pasatzen denak jakin beza
harri horiek herriko historiaren zati bat
direla. Eta sugandilen habitata.

ALTAMIRA

Aparkaldi mugatua udazkenetik aurrera

Aparkaldi mugatuko gunea izango du Altamira auzoak udazkenetik aurrera. Auzo horretan sortu diren arazoak direla medio, autoa han utzi nahi duenak txartela eskatu beharko du udalean. Neurriaren helburua Lezoko bizilagunei autoa uzteko garaian lehenetsuna ematea da, bereziki Altamirakoei.

Egunean zehar librea izango da aparkatzea, baina, gauez ez. Horretarako bi gune bereizi dituzte. Lehen gunea Tomás Garbizu kalea da. Hor 20:00etatik 08:00etara izango da aparkaldi mugatua. Bigarren gunean, igerilekuko aparkalekuan, muga 22:00ak eta 07:30ak artekoa izango da, igerilekura doazenei eragozpenik ez sortzeko.

Araua betetzen ez duenak isuna jasoko du eta garabiak autoa eramango dio. Udazkena baino lehen, baimena nola eskatu behar den zehaztasun handiagoz azalduko udalak.

Txartela, 10 euroren truke

Zonalde horietan gauez aparkatzeko txartela eskuratzeko, derrigorrezkoa izango da autoaren jabea eta autoa Lezonen erroldatua egotea. Gainera, gidariak ez du udalarekin zorrik edukiko. 10 euroko tasa ordainduta, urtebeterako txartela eskuratu ahal izango da. Kontuan hartu behar da ere, erroldatu bakoitzak txartel bakarra izango duela. Txartelarekin batera banatuko den pe-

gatina ibilgailuaren aurreko kristalean itsatsi beharko da.

Auzotarren adostasunarekin

Neurri hori auzotarren adostasunarekin hartu du udalak, izan ere, aparkaleku faltaren arazoa larriagotzen ari zen piskanaka. Altamira oso gertu dago Izietatik eta errenteriar askok hor uzten zuen kotxea, gero herrira oinez jaisteko. Ez hori bakarrik, azkenaldian gremio askoren aparkaleku ere bihurtua zegoen Altamira. Aparkatzeko arazo larriak zeuden, nahiz eta, berez, auto baino aparkaleku gehiago dagoen. Lezoko Udalak halako neurri bat hartzen duen lehen aldia da hau.



Estacionamiento limitado en Altamira

Dados los problemas que ha habido por falta de aparcamientos en Altamira, el ayuntamiento ha decidido regular los aparcamientos del barrio y declararlos como zona de estacionamiento limitado. La norma entrará en vigor en otoño.

Durante el día el estacionamiento será libre, pero por la noche no. El barrio se

dividirá en dos zonas. En la primera, la calle Tomás Garbizu, el estacionamiento será limitado de 20:00 a 08:00. Sin embargo, en la segunda, el aparcamiento de las piscinas, será de 22:00 a 07:30, para no causar molestias a los usuarios del recinto deportivo. Para aparcar en Altamira en esos periodos de tiempo (por la noche), será necesario obtener una tarjeta.

Para obtener la tarjeta, será necesario estar empadronado en Lezo y tener

el vehículo censado también en Lezo. Además, el conductor deberá estar libre de deudas con el ayuntamiento.

La tarjeta, que cuesta 10 euros, tendrá caducidad de un año. Cada empadronado adquirirá una sola tarjeta. Asimismo, al que no cumpla la norma, se le multará y la grúa le llevará el coche.

Antes de otoño, el ayuntamiento informará a los vecinos cómo realizar la petición de este permiso.



POSITIBO HASI DU URTEA LEZOK

2009ko ekitaldia ia milioi bat euroko superabitarekin amaitu du udalak

Albiste onez itxi da ekainean 2009ko ekitaldiaren likidazioa. Izan ere, ia milioi bat euroko superabitarekin hasi du udalak 2010a. Euste politika eta hirigintza sarrerak bideratu izana ahalbidetu dute egoera hau. Honekin, aldatu egin da udalaren egoera, 2008a 1,5 milioi euroko defizitarekin amaitu baitzuen.

Aurrerantzean euste-politika ekonomikoa

Egungo egoera ekonomikoa txarra ez den arren, aurrerantzean zuhur jokatu du udalak, eta jarduera ekonomikoa euste-politikan oinarrituko du. Alegia, behar-beharrezko diren gastuak baka-

rrik egingo ditu udalak. Egungo egoera oso berezia da Haritz Salaberria alkaterearen hitzetan. "Gasteiz eta Madrilgo gobernuek ez-ohiko laguntza finantzarioak eman dituzte azkenaldian, eta horiek lagundu egin dute egungo egoerara heltzeko. Baina laguntza horiek puntualak dira eta desagertu egingo dira laster, beraz, udalak defizitarioa izaten jarraituko du". Horregatik, aurrekontu-oreka lantzen jarraituko du udalak. Hau da, sartzen dena baino gutxiago gastatzen. Horretarako, zergak mantendu (ez dira jaitziko) eta inbertsioak gutxituko ditu. Beraz, herstura urteak izango dira datozenak.

Udala duela bi urte hasi zen sarrerak gutxitzearen aurrean neurriak hartzen eta horren ondorio da egun duen koltxoi ekonomikoa. Garai hartan zorpe-tzea ez handitzea erabaki zuen udalak, Lezok berez duelako zor handia; finantziarioak bilatu zituen (testuinguru ekonomikoarengatik laster desagertuko diren horiek), eta egunean eguneko aurrekontu-oreka kontrolatu zuen.

Beraz, duela pare bat urte hartutako neurri horiei esker egun koltxoi ekonomikoa duen arren, aurrerantzean oraindik esfortzu handia egin beharko du udalak arlo honetan.



ALBISTE LABURRAK

Perutxo Lazón eta Zabarre aurrez aurre jaien hasieran

Lezoko jaiak bisitari berezia izan dute aurten. Perutxo Lazón, Guillermo Lazón jauntxoaren semea, herrian azaldu zen ezustean jaien lehen egunean. Baina, harrera bitxia izan zuen, zergak ordaindu nahi ez zituela-eta, Zabarre pirataekin borrokan amaitu baitzuen. Azkenean pirata ausarta gailendu zitzaion, eta herriari eman zion Perutxok beretzat nahi zuen altxorra. Zabarrek Perutxo herrian zehar lotuta eraman ondoren, ostiko batez Lezotik kanpora bidali zuen. Parodia horrek eman die hasiera aurtengo Mendekoste jaietara. Zabarre pertsonaia ezaguna da herritarrentzat, baina, aurten antzeppen hori egiten den lehen aldia izan da eta sortutako giro ona ikusirik (eguraldiak ere izan zuen zerikustekorik), litekeena da, datozen urteetan ere, pirata eta jauntxoaren arteko borrokaldiek ematea hasiera maiatzeko jaietara.

Oro har, jaien balorazio ona egin du udalak eta antolatutako ekintzen artean, Sagargo festa eta pastoralara nabarmendu ditu. Lehenera jende asko azaldu zen, akaso, hori delako herriko sagardogileen sagardoa dastatzeko aukera bakarra; izan ere, ez baitute komertzializatzen. Bestalde, 400 ikusletik gora gerturatu zen Saldise Plazara pastoralara ikustera.

Etxebizitza tasatuetan izen-emateko zerrenda, irailean

Irailean zabalduko da Aralar kaleko 20 etxebizitza tasatuetarako eskatzaileen erregistro-zerrenda, eta zozketa urtea amaitu baino lehenago izango da. Horretarako, derrigorrezkoa izango da erregistro-zerrendan izen-ematea. Bete beharreko baldintzak eta informazio zehatzagoa aurrerago emango du udalak, ohiko bitartekoan bidez.

S-1 sektorean egongo dira etxebizitzak, Aralar kalean, hain zuzen, eta dagoeneko, lanak hasiak daude. Asmoa urte eta erdian amaituta egotea da.

Aldaketak Allerru Mendi Taldean

Ekainaren 13an ikasturteko azken mendi irteera egin zuen Allerru Mendi Taldeak. Jaizkibelera irteera egin ostean, bazkaria egin zuten herriko plazan eta eta sariak banatu zizkieten ikasturteko bederatzirteeretatik, gutxienez, zazpitan parte hartu duten haurrei.

Egun hark, ordea, beste esanahi bat ere izan zuen. Izan ere, egungo antolaketa taldearen agur moduko bat ere izan zen. 20 urteren ostean antolatzaile taldea aldatu egingo da. Egun dagoenak laguntzen jarraituko du, baina ardurak hartu gabe. Hala ere, oraindik ez dakite nor hartuko duen lekukoa.

GIZARTE ZERBITZUAK GAINEZKA

Gizarte langile berri bat kontratatu du udalak

Lezoko Gizarte Zerbitzuak gainezka daude. Urtebetetik hona asko igo da zerbitzu honetara jo duten pertsonen kopurua eta, horregatik, udalak gizarte langile berri bat kontratatu du. Ekainean hasi da lanean.

Azken sei hilabeteetan asko zaildu da egoera Lezon eta gero eta jende gehiagok jotzen du Gizarte Zerbitzuetara laguntza eske. Laguntza hori jasotzeko, ezer baino lehen txanda eskatu behar izaten da. Orain arte, txanda horiek aste batetik bestera ematen ziren (bi

astera asko jota), baina, orain bi hilabete itxaron behar izaten da, langileak lanez lepo daudelako. Denbora tarte hori gehiegizkoa da, kontuan hartuta zerbitzu horretara jotzen duten pertsonen berehalako laguntza behar izaten dutela euren egoera larria dela medio.

Konponbide gisa, egoera larriean zeuden pertsonen lehenagotzat tratatzea ematea erabaki zen, baina neurri hori ere ez da nahikoa izan. Beraz, udalak gizarte langile berri bat kontratzeko tramiteak hasi zituen.



ZATEA

Lan-kargaren arrazoiak

Azkenaldian egoera sozio-ekonomikoa asko aldatu da eta orain arte zerbitzuaren beharra ez zuen jende asko ari da Gizarte Zerbitzuetako atea jotzen. Hori da zerbitzuko lan-karga igo izanaren arrazoi bat. Horien artean gehiengo krisiaren ondorioz langabezian geratu den jendea eta hirugarren adineko pertsonak dira. Hala ere, emakumeek, adin txikikoek eta atzerritarrek ere jasotzen dute zerbitzuaren laguntza.

Horretaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Jaurkitzearen egon diren lege aldaketek ere eragin dute. Gizarte Zerbitzuak, nagusiki, Foru Aldunditik jasotzen diren laguntzak kudeatzen ditu. Tramiteak ez dira zailegiak izan ohi, baina, lege berriak tarteko, tramite berriak sortu dira eta beste batzuk aldatu egin dira. Horrek asko moteldu du prozesua. Gainera, erabaki politikoak ere badaude tartean. Gobernu berriaren irizpideetara egokitzeko aldaketak egin behar izan baitira, eta horrek ez dio egoerari lagundu. Aldaketa guztiak krisi egoera okerrenean iritsi dira, be-

raz. Azken puntu hori garrantzitsua da, txanda hartzeko itxaron zerranda luzea izateaz gain, ondoren laguntza eskatzeko epea ere asko luzatzen bada, eskatzailearen egoera larriagotu egin daitekeelako. Berehalako laguntza behar duen jendearentzat, epe luzeegiak dira horiek.

Uztaitetik aurrera, astearteak eta ostegunak izango herritarren arretarako egunak

Udala lanean

Gizarte Zerbitzuetarako langile berria hartzeaz gain, iaz etxeko laguntza zerbitzurako koordinatzaile bat kontratatu zuten zerbitzua hobetzeko. Zerbitzu hori etxean laguntza behar duten hirugarren adineko pertsonen dago zuzenduta, batik bat. Horrez gain, okerrik ez dela, irailean egongo dira erabilgarri adinekoentzako apartamentu tutelatuak. Zortzi apartamentu eskainiko dira eta 11 pertsonentzako lekua egongo da. Bestalde, udalak Ongizate Batzordea sortu du eta, egun, Berdintasun Planarekin ari da lanean.



OLATZ ALBERDI

GIZARTE ZERBITZUETAKO TEKNIKARIA

“Txalotzekoa da herriko talde batzuek gizarte zerbitzuen alorrean egiten duten lana”

Olatz Alberdi Lezoko Gizarte Zerbitzuetako teknikaria da eta Eneritz Beloki gizarte langilea. Garai beretsuan hasi ziren lanean Lezoko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailan. Laster beteko dute urtebete, hasieratik, herritarrek merezi duten zerbitzua jaso dezaten egin dute lan buru-belarri.

-Urtebete daramazu lanean hemen, zer balorazio egiten duzu?

Hona sartu nintzenetik asko hazi dira jendearen beharrak. Orain, egoera okerragoa da. Baina zerbitzuaren ikuspegi-
tik hobekuntzak egitea lortu degu.

-Nola ikusten da Lezo zure bulegotik?

Herri txikia izateko jende dezente etortzen da laguntza eske: adinekoak, adin txikikoak, menpekotasuna dutenak... Hala ere, badaude talde batzuk, udalarekin zerikusia ez dutenak eta esparru horretan lan handia egiten dutenak, ekintzak antolatzen, etab. Hori da Aiton Borda eta Gaxuxa emakumeen elkartearen kasua. Txalotzekoa da.

-Eta zer behar du?

Jendeari begirako langile gehiago, baina hori ekainean konpondu dugu. Bestalde, kale-hezitzaileentzako lokala beharko litzateke. Alde horretatik ezin

degu nahi adina egin, ez dagoelako dirurik.

-Zer motako arazoentzako laguntza eskaintzen duzue?

Arazo sozialak, ekonomikoak edo familiar-
tekoak dituztenentzako laguntza eskaintzen dugu, eta hor, egia esan, ia denetarik sartzen da.

-Edozein lezoar etor daiteke hona?

Bai. Hona etortzean txanda hartu beharko du. Gero, laguntzak eskatzeko baldintzak betetzen ote dituen aztertuko degu. Betetzen baditu, aurrera egingo degu laguntza egokienaren bila. Baldintzak betetzen ez baditu, interesgarriak izan daitezkeen beste bideak bilatzen laguntzen diegu. Esate baterako Oarsoaldea Garapen Agentziarekin elkarlanean aritzen gara. Adin txikikoen kasuan, ikastetxeekin edo kale-hezitzaileen programarekin jartzen gara harremanetan.



El ayuntamiento ha contratado una nueva trabajadora social

En los últimos seis meses el volumen de trabajo del departamento de Servicios Sociales ha aumentado de manera drástica, fundamentalmente, debido al aumento de personas que han recurrido al servicio a pedir ayuda. Como consecuencia, las listas de espera para las citas, han pasado de ser de una semana o dos, a dos meses. Esa situación se ha vuelto insostenible tanto para los demandantes como para el propio ayun-

tamiento. Así el consistorio ha decidido contratar una nueva trabajadora social, que según lo previsto, se incorporará al trabajo este mismo julio.

En los últimos tiempos la situación socio-económica se ha recrudecido y muchas personas han tenido que recurrir a este tipo de ayudas por primera vez. Además, a eso hay que sumarle el cambio que han padecido algunos trámites de las ayudas, lo cual ha ralentizado el proceso. Asimismo, también han influido algunas decisiones políti-

cas dadas por el cambio de gobierno en Gasteiz. Todo ello ha venido en el peor momento económico, y es lo que ha causado esta situación en el ayuntamiento de Lezo.

Además de incorporar una nueva trabajadora social, el año pasado el ayuntamiento contrató a una coordinadora para el servicio de ayuda domiciliaria. Asimismo, en septiembre se abrirán ocho apartamentos tutelados con cabida para once personas de la tercera edad.

PARTE-HARTZEA

Lezoarren laguntzaz hobetu nahi du herria udalak

Legegintzaldi hasieran herritarren parte-hartzea bultzatzeko bideak jarriko zituela esan zuen egungo udal gobernu taldeak. Esan eta egin. Horretan ari da lanean azken urteotan.

Kezka herrian zegoen giro eta mugimendu faltatik sortu zen, ikusita, herritarrek geroz eta lotura gutxiago dutela herriarekin. Egungo ezaugarri bat da geroz eta indibidualistagoak izatea. Hori, ordea, galbidea da herrigintzarako. “Ezin dugu ahaztu talde bat garela” dio Haritz Salaberriak “eta denen artean aktibatu behar dugula Lezo. Horretarako herritarrei galdetu behar diegu, eta erabakitzeke ahalmena eman, eta hala ari gara egiten”.

Gakoa herriko arazoetan pentsatzea da, ez norberak bere atarian izan ditzakeenetan bakarrik. Parte-hartze proze-

suak bideratu eta gai jakin batzuk eztabaidatzeko bilerak egitearen abantaila nagusia da herriarekiko kezka piztu eta herritarren arteko harremanak indartzen direla. “Batuetan tematuta ibiltzen gara gure iritzia defendatzen, baina, halako guneetan argumentu ezberdinak entzunda iritzia alda dezakegu, eta hori aberasgarria da”. Gainera, herriarekiko lotura afektiboa sendotu egiten da.

Esperientziak erakutsi du hori dela bidea. Jada, herrian bideratu diren egitasmo batzuk bilera eta parte-hartze prozesuen bidez egin dira, eta hori ez da itxura hutsean geratu, kasu gehienetan, herritarrek esandakoa kontuan hartuta proiektuak aldatu egin baitira. Horretaz gain, herritarren parte-hartzea duten lau batzorde jarri ditu martxan udalak: Jai Batzordea, Kiroletako

Mahaia, Gizarte Zerbitzuetako Batzordea eta Lezo Berrito Euskaldun Batzordea.

Bestalde, egungo Gobernu Taldeak herriko foro bat sortzea proposatu zuen bere programan, udalgintza eta herrigintza landuko duten herritarrak biltzeko asmoz. Lan horretan duela hilabete batzuk hasi ziren eta Herritarren Sarea deitutakoa izan da emaitza.

Pixkanaka, parte-hartzearen filosofia udalaren lan egiteko eskeman integratzea da asmoa. Horretarako, arestian aipatutako batzordeak arautu eta iraunkor bihurtuko dira eta Herritarren Sarea egonkortu egingo da. Baina heziketa eta sentsibiltate lan handia egin behar da, denborarekin, herritarra bilera horiek deitzeko ahalmena edukitzera iritsi arte.



Parte-hartze bileren bidez egindako lan batzuk


**Hirigintza plana
Euskal Herria plaza
Skate plaza
Alde Zaharretik
kotxeak ateratzea
Markesane parkea
Guillermo Lazón
eta Jauregialde**



TERESA ZARZUELO



AITOR VIDAL



IKER SALABERRIA

Herritarren Sarea

Apirilaren 20rako egin zen Herritarren Sarerako lehen deialdia. Orain arte diagnostikoa egiteaz gain, lan ildoak finkatu eta sarearen funtzionamendua zehaztu dira. Irailean jarraituko dute lanean, oporren ostean.

Aitor Vidal herritarra bere iritzia emateko grinaz joan da bileretara. Hori da aktibo izateak duen sari nagusia, bere ustez. Iker Salaberria, udalgintza eta herrigintzaren gogoeta egiteko asmoa zegoela jakin zuenean, prest agertu zen. "Neuriko esfortzua eskatuz, herriak iritzia eman dezake eta udalak ikuspegi zabalagoa izango du, teknikari eta politikoen ikuspegiaz aparte".

Gainera, bilera horiek ez dira hala nola-koak. Jokoak eginez hasten dira saioak eta irauten duen denboran algarek uste baino protagonismo handiagoa dute. Harritu egingo litzateke bat baino gehiago.

Bileretara jendea gerturatzen den arren, kostatzen da herritarrei ha-

lako konpromisoa eskatzea. Ideia zabaldua da bilera horiek alperrikakoak edota aspergarriak direla. Uste okerrak biak ere. Hori aldatzeko gakoa, ordea, udalak du Aitorren iritziz. "Oinarrikoa iruditzen zait herritarren proposamenek islada edukitzea. Ikusten badezu iritzia kontuan hartzen direla, bilera horietara joaten jarraituko dezu". Eta hori da udalak egingo duena.

Komunikazioa ere garrantzitsua da Ikerren iritziz. "Horrelako prozesu bati interesegatik begiratzeko jendearengana emozioz iritsi behar da. Gainera, herri bizia izateak badu lotura parte-hartzearekin, eta jendearen balio kulturalak ere inportanteak dira. Adibidez, gaztetxoak lokaletara joaten dira eta ez dute parte-hartzen. Joera arriskutsua da hori".

Teresa Zarzuelo botikariak argi du zein den Herritarren Sarean parte-hartzearen arrazoia. "Lezokoa naiz eta Lezotik bizi naiz, hobetzeko egin daitekeen guztia begi onez ikusten det". Ilusioz hitz egiten du Teresak, eta hori da hain zuzen, bere ustez udalak eta herriak behar duena: ilusioa. "Kutsatu egiten baita".

Lezo herri txikia da, geografikoki pribilegiatua. Kosta eta mendia bertan ditu eta, hiriburutik gertu dago. Gainera, izaera euskalduna eta hizkuntza mantendu ditu. Hala ere, ez da perfektua eta herritar bakoitzak seguru asko, hobetzeko gauza bat baino gehiago ikusiko dizkio. Horien inguruan sakondu nahi du Herritarren Sareak.

Lezoren etorkizuna da Ikerren kezka. "Kanpo kaiaren gaia asko ateratzen da, kanpoko interesegatik erantzunez nola eragingo dion Lezori. Hizkuntzak ere kezkatzen nau. Lezo bada herri euskalduna, baina, bilakaeran ez du urrats esanguratsurik eman azkenaldian". Oraina da batez ere, Aitor eta Teresaren kezka. Lehenak gauza batzuk ezberdin izatea nahiko luke, "garraio publikoak hobeto funtzionatu eta kotxeek presentzia gutxiago izatea herrian". Bigarrenaren kezka, prestazio sozialak dira. "hirugarren adineko jendearen beharrak hemen asetuz behar dira".

Herritar orok du iritzia eta zer esana, eta lezoar orok du esandakoa kontuan hartu izateko gogoia. Herritarren Sareak ematen du bada, horretarako abagunea.



Lezo Berriro Euskaldun Batzordea

Urte batzuez utzia egon ondoren, iaz jarri zen berriz martxan Lezo Berriro Euskaldun Batzordea. Talde horren misioa, alde batetik, udalaren euskara politikaren gainean egon eta proposamenak egitea da, eta bestetik, kalean euskarak duen lekua hobetzea da. Gogoetak eta proposamenak egiteko. Horretarako bi hilean behin elkartzen dira taldeko kideak.

Denbora gutxi da batzordea berriz ere lanean hasi zela, eta egun herriko diagnostiko sakona egiteko lanean ari dira. Funtsean lau ildo landu nahi dituzte: euskara ordenantza berria, gazteen sentsibilizazioa, gazteen aisialdirako programa, eta komunikazio tresna berrietan euskarak duen presentzia.

Horretarako, Lezoko egoera aztertzeaz gain, inguruko herrietan egiten diren ekimen eta proiektuei ere erreparatzen diete, herrian martxan jartzeko ideiak bilatzeko. Hiruko taldetan antolatuta egindako lana batzordeetan aurkeztu, eta bertan erabakitzen dute, denen artean, zer eta nola sakondu.

Epe ertainera, udalak batzorde hori udal-egituraren barruan txertatu nahi du, baina ez egitasmoak kontrolatzeko, hor egiten den lana udalean integratzeko baizik. Horren arabera, batzordeak bere autonomia izango luke, eta behar izanez gero, hori dinamizatu eta xaxatzeko lana hartuko luke udalak.



Gazte Plana

Gazte planaren parte-hartze prozesua bukatze dago. Izan ere, prozesu guztiari amaiera ematen dion azken bilera egin berri du Elhuyarrek (prozesua gidatu du) udalarekin eta gazteekin.

Maite Zipitria izan da, Elhuyarren ize-nean, parte-hartze prozesua zuzendu duena. Berak argi du gazteek jende askok uste duena baino gauza gehiago dutela esateko eta ondo arrazoituta-koak, gainera. Prozesu honetan, gehien bat, 15 urte inguruko gazteek hartu dute parte. Ondorio gisa esan daiteke, gazteen iritziz, herrian ez dagoela ezer

beraien aisialdira zuzenduta. Horren harira, kontzertu hobeak, Gaztelekua eta Kuadrilategi 16 urte bete arte erabili ahal izatea eskatu dute. Gainera, kezkatu agertu dira Markesaneko parkearekin; lanak hasi aurretik hor biltzen zirelako, eta susmoa dutelako, ondoren, haurrei zuzendua egongo dela.

Hala ere, Maiteren iritziz, “edukia bera baino garrantzitsuagoa da parte-hartze eta eztabaida mugimendua sortzea”, luzera begira onura asko ekarriko dizkiolako herriari. Prozesu horretan hiru aldiz elkartu dira gazteekin. Lehendabizikoan diagnostikoa egin zen; bigarre-

nean, gazteek herrian zer egiten duten kontatu zuten, eta norekin egiten duten; azkenik, hirugarrenean, Lezorako proposamenak eraman zituzten.

Hasiera batean, gazteak harritu egin ziren udalak beraiengana jo zuelako iritzi eske, baina gerora oso jarrera ona adierazi dute. Are gehiago, aurrerantzean, halakoetan parte hartzen jarraitzeko asmoa agertu dute. Beraz, badago lan egiteko oinarria. Aitzitik, prozesu horretan argi geratu da 25 urte inguruko gazteak herritik desagertuta daudela. Horren inguruan hausnarketa egin beharra nabarmen geratu da.

“Ezin dugu ahaztu talde bat garela eta denen artean aktibatu behar dugula Lezo. Horretarako herritarrei galdetu behar diegu, baina erabakitzeke ahalmena emanaz, eta hala ari gara egiten”

Haritz Salaberria

El ayuntamiento quiere fomentar la participación ciudadana

Desde que comenzó la legislatura, el ayuntamiento ha hecho un esfuerzo real para impulsar la participación y la implicación ciudadana. Así lo prometió en el programa electoral. Esa necesidad estriba en la falta de implicación con el pueblo. Según el alcalde Haritz Salaberria “no podemos olvidar que somos un grupo, y como tal, debemos activar Lezo entre todos”. Para ello el ayuntamiento ha dado la palabra y capacidad de decisión a los lezoarras.

En los últimos tres años se han puesto en marcha cuatro comisiones: Fiestas, Lezo Berriro Euskaldun, Servicios Sociales y la Mesa de Deportes. Además en muchas obras se ha contado con la opinión de los vecinos. Es más, en la mayoría de los casos, los proyectos se han cambiado a raíz de su aportación. Es el caso del Plan de Urbanismo, la plaza Euskal Herria y la pista de skate. Por otra parte, el ayuntamiento acaba

de dar el pistoletazo de salida a Herritarren Sarea. Un foro donde debatir y decidir hacia dónde debe ir Lezo. En las reuniones que se han celebrado hasta ahora, se ha hecho un diagnóstico de, se han marcado las líneas a trabajar y también el funcionamiento de la red. Herritarren Sarea seguirá trabajando en septiembre.

Todas estas iniciativas han nacido para ser permanentes, para que con el tiempo se integren en la estructura de trabajo del ayuntamiento, para que la palabra del vecino tenga más peso.

Lezo Berriro Euskaldun

Está comisión ha estado abandonada durante mucho tiempo, y ahora unos vecinos de Lezo lo han retomado, con el objetivo de analizar la política lingüística del ayuntamiento e incidir en la situación del euskera en la calle.

Para ello, trabajan los temas y los ponen en común en las comisiones. Ahí se analiza qué y cómo profundizar.

Plan para Jóvenes

El 11 de junio se dio por finalizado el proceso de participación para desarrollar el Plan para Jóvenes.

En él han participado jóvenes de alrededor de 15 años y la conclusión principal ha sido que el pueblo no les ofrece nada para su ocio. Además, piden mejores conciertos, un Gazteleku y ampliar el límite de edad del programa Kuadrilategi hasta los 16 años. Asimismo se han mostrado preocupados con el parque Markesane, ya que, antes de que comenzaran las obras era su lugar de reunión y temen que después se dedique a los niños.

Por su parte el ayuntamiento se ha mostrado muy satisfecho con el resultado, porque, más allá del contenido, los jóvenes han mostrado la voluntad de participar en reuniones de este tipo en el futuro. En opinión del ayuntamiento, el hecho de que los jóvenes se presten a ello, presagia un futuro más participativo, y por tanto, un Lezo más dinámico y vivo.

PRESOAK

Familientzako dirulaguntzak auzitan

Lezoko Udala auzitan dago 2009an preso-en familiei zuzendutako diru-laguntzak direla medio. Estatuko Fiskaltzak jarri du horien aurkako errekurtsoa, Biktimen Legea betetzen ez duela argudiatuta. Horren harira, Haritz Salaberria alkateak lezoarren eskubideak defendatu ditu. "Herritarrek familiarteko presoekin kontaktua izateko eskubidea dute, eta era berean, preso lezoarrek eskubidea dute senitartekoen bisitak jasotzeko". Familiei oztopoak jarritz, preso-en zigorra handitu nahi dela salatu du alkateak.

EAJ eta EA alkatetzan zeudenean erabaki zen herriko preso-en senitartekoentzako laguntzak arautzea. Horren arabera, hilean bi bisita egiteko garraio gastuetarako laguntza ekonomikoa ja-

sotzen dute herriko preso-en senideek, preso-a dagoen lekuan dagoela. Ez preso politiko-en familiartekoek bakarrik; preso sozialen familiek ere badute horretarako eskubidea. Deportatu-en kasuan, urtean bi bidaia ordaintzeko laguntza ematen da.

"Presoak Euskal Herrian egongo balira, ez genuke diru-laguntzarik beharko"

Itziar Goienetxea Xabier Alegriaren emaztea da, eta senarra Lezotik 1200 km-ra du, Puerto III espetxean (Cadiz). "Errekurtsoarekin ito egin nahi gaituzte. Legeak dioen bezala, preso-a etxetik gertu egongo balitz, ez genuke laguntzarik beharko. Hala ere, hori gabe ge-

ratzen bagera berdin segiko degu, ez ditugu bakarrik utziko, dirua harri azpitik atera behar bada ere".

Garraio gastuez hitz egiten da gehienetan. Baina, hortik aparte familiak bere gain hartu behar dituen gastu asko dago. Besteak beste, preso-en arropa, janaria (espetxekoa benetan da osasunerako kaltegarria), telefonoa, egunkarien harpidetza, dentista, liburuak... Odoluste bat da". Etxeratek egin du kalkulua eta, batzaz beste, 1.637 euro gastatzen ditu familia bakoitzak hilabetean (garraioan bakarrik).

"Diru-laguntzak preso politiko eta sozialen senitartekoentzako dira"



Diruz laguntze horretan, kopuru guztiek balio dute. Etxeratek diru-bilketa kanpainak egiten ditu, norberak ahal duena eman dezan. Senitarteko guztiek bezala, Itziarrek benetan eskertzen du jendeak egiten duen esfortzua. “Dirurik eman ezin denean ere, edozerk balio du laguntzeko. Pertsona batek urtetan galtzerdiak oparitu dizkio Xabierri eta oso gustora erabiltzen ditu”.

Elizabeth dago laguntzeko era bakarra; adibidez, familiarentzat oso inportantea da jendeak presoari bisitak egitea. “Senideek arrazoi batengatik edo besteagatik ezin dute beti joan, eta presoaren ezin da bisitarik gabe geratu” dio Itziarrek. Itziar harro dago herritarrek erakusten ari diren jarrerarekin. “Gutxitan gogo-

ratzen ditugu, baina Lezon txofer asko dago, furgonak gidatzeko prest egoten denak familiak bisitetara eramateko. Talde oso garrantzitsua dago eta asko eskertzen zaie”.

Etxerat, familia politikoa

Etxerateko kide guztiak ezaugarri batek biltzen ditu: errepresaliatu politikoekin senideak eta lagunak izatea. Familia bat osatzen dute, elkarri laguntza eskaintzen diotelako. Une txar eta hobeetan esperientziak partekatzen dituztelako. Hala ere, funtsean Etxerat zerbitzu gune bat da; zoritxarrez laguntza morala eta animoak ez direlako aski presoekin senide eta lagunentzat. Hala, Etxeratek bisitak egiteko autobusak eta furgonak antolatzen ditu, aholkularitza

ematen du, familiak elkarren artean harremanetan jartzen ditu, Frantziako espetxeekin bitartekaritza lanak egiten ditu, abokatu-zerbitzua eskaintzen du, presoekin jarraipena egiten du eta abar luze luze bat.

Beste gauza batek ere batzen ditu Etxerateko kideak: irmotasuna. Euskal Herriko ehundaka herritan enkarteladak egiten dira astero. Lezonen ostiralean izaten dira, 20:00etan. Herritarren babesa sentitzeko derrigorrezko dosia da hori familiartekoentzat. Hor jasotzen dute animoa eta maitasuna, helburua ez baita presoekin eta familiek bizi duten krudeltasuna kaleratzea bakarrik. Gainera une hori baliatzen dute hitz egiteko, informazioa eman eta jasotzeko.



Itziar hamabostean behin joaten da Xabier bisitatzera Puerto Santa Mariaraino (Cadiz, Espainia). Hiru egun behar ditu 40 minutuko bisita egiteko. “Ostiraleko 16:45ean ateratzen da autobusa Errenteriatik eta Gasteizera doa, tartean geldialdiak eginda Donostian eta Bilbon senitarteko gehiago jasotzeko. Oro har, Andaluziara eramaten dituzte zigor gogorrenak dituzten presoak, eta geroz eta gehiago dira. Beraz, autobusak geroz eta beteago egiten ditu 1200 kilometroak”.

23:00etan besaulkiak litera bihurtzen dira, eta lo kuluxka egiten du ahal duenak, urduritasuna eta erosotasun-eza bateraezinak baitira loarekin. 06:00etan iristen dira Sevillara. Hor jaisten dira Huelvara doazenak. 07:00etan Jerezan geldiunea, Aljecirasera doazenentzako. 07:15ean egon ohi dira La

Venta del Cepon, autobusaren azken geltokia, Itziarren.

Bentako komun txiki eta zikinetan aldatzen dira arropaz eta hortxe egiten dute gutxieneko garbiketa pertsonala. Gero autobusak espexera hurbiltzen ditu. Goizeko 09:00etan hasten dira bisita txandak eta 20:00etan amaitzen dira. “Egunean zehar bakoitzak ahal duena egiten du, den denak bisita bukatu arte ez baitugu bueltako bidea hartzen, normalean 20:30ean izaten da hori”.

Kontrako bidea hasten da orduan: La Venta del Cepo, Jerez, Sevilla,... Igan-deko 10:30ean iristen dira Lezora.

Bidaia guztia alferrik egitea maizegi gertatu da. Presioa egiteko kontrol bereziak pasa behar izaten dituzte preso politikoekin familiarteko eta lagunek es-

petxean. Askotan hainbeste luzatu dira kontrol horiek, bisitak galdu egin dituztela. “Gainera, joan den urritik palpazioen kontua dago. Lortu degu hurrek hortik pasa behar ez izatea, eta helduok, azkenean onartu behar izan dugu presoak bisita gabe geratzen zirelako; minimo batzuk errespetatuta beti ere”.

Bidaiaren gogortasuna areagotzen duten sorpresa zakarrak ere izaten dituzte, preso politikoen familia edo laguna izate hutsagatik. “Kontrol asko pasa behar izaten ditugu; Behin gauzez eta neguan autobusetik aterarazi gintuzten; tabernetara sartu eta karnetak eskatu izan dizkigute; zakurrak ere sartu izan dituzte autobusean; pintura gorria bota izan diote autobusari; autobuseko lau gurpilak zulatu...”. Gogorrek dira bisitak, baina, Itziarrek oraingoz egin ditzake. Hala ere, guraso askok ezin



dituzte beren seme-alabak ikusi ez dutelako bidai luzeak egiteko adinik; edo gaixo daudelako, gurpildun aulkietan daudelako (espetxe asko ez daude egokituak), diruz larri dabiltzalako...". Gogorra da, baina indartsu gaude. Herriak asko babeste gaitu, eta urte luzez horrela ibili diren amek asko irakatsi digute. Gu ez gera gutxiago izango!". Hitzok esatean, xamurtasunez gogoratu du Itziarrek zendu berri den Joxepa Arregi Etxerateko lehendakaria, eta ez ditu ahaztu Lezon eredu izan diren hainbat eta hainbat emakume ere. Berriki, Fanekasen ama hil egin da, azken urteetan bere semea ikusteko aukera izan gabe.

Dudarik ez dago kartzelan dagoenak bizi duen egoera gordina dela. Baina, akatsa da sufritzen duen bakarra espetxean dagoena dela pentsatzea. Fa-

miliarentzat gurutze-bidea baita urte gehiegi iraun ohi duen egoera horretatik tira egitea.

Bi preso

Xabier Alegria Loinaz (Puerto III, 1200 km):

1998an Egin auziarengatik espetxeratu zuten eta 1999an atera zen. 2000an Ekin auziaren harira atxilotu zuten eta 2001an atera zen kalera. 2003ko otsailan Egunkariako atxilotuen artean egon zen eta apirilean Udalbiltzagatik auziperatu zuten. 2004an atera zen kalera. 2008an 18/98 auziaren harira kondena betetzeko sartu zuten kartzelan (Egin kasuarengatik). 12 urte eta 9 hilabetekoa du kondena. Puerto III espetxea espainiar estatuko gogorreneta-

rikoa da, besteak beste, berria denez, gogorra izateko dagoelako prestatua. Hor isolamendu hutsean dago Xabier. Bi urte eta erdi daramatza preso, eta bitarte horretan pertsona bakar batekin koinziditzen du patioan, ez du lehiorik eta patiotik ere ez du kalea ikusten. Baimena eskatu behar du edozer gauza egiteko.

Lorenzo Aiestaran Legorburu Fanekas (Nanterre, 700 km):

1978an alde egin zuen. 1984an Frantziak Venezuelara deportatu zuen eta 2010ko otsailan Frantzian atxilotu zuten. Fanekas-ek urte asko daramatza herritik kanpora, baina hasi da lezoarren bisitak jasotzen, lagun berriak egiten. Astean hiru bisita jaso ditzake, baina familiak behin besterik ezin du joan.

UDALBILTZA AUZIAN AUZIPETUA

IMANOL ESNAOLA

“Euskal hautetsiek lan instituzionala egiteko duten eskubidearentzat errespetua exijitzen dugu”

Xabier Alegria eta Imanol Esnaola Lezoko zinegotzi ziren 1999an, Udalbiltzak bere ibilbidea hasi zuenean. 2003an, 12 lagun atxilotu zituzten eta, 2004an, 22 pertsona auzipetu ETAko kide izatea egotzita, tartean Xabier eta Imanol. Xabier Alegria, gaur egun, kartzelan dago 18/98 auzian epaitu ostean. Imanol, urtebeteko espetxealdiaren ostean, baldintzapean aske dago epaiketaren zain. Uztailaren 15ean hasiko da epaiketa eta hamar auzi-saio izango ditu uztailan eta irailean.

Alkateak babes osoa agertu due udalaren izenean (horren adierazle da ekainean aurkeztutako mozioa). “Xabierrek eta Imanolek euren ardura politikoari zegokion lana besterik ez zuten egin. Udal erabaki batez sartu ziren Udalbiltzan, beste edozein izan zitekeen hor dagoena”.

-Zortzi urte zain emanda, epaiketaren atarian nola zabiltzate animoz?

Estutasuna eta harrotasuna nahasten zaizkigu. Zigorra etorriko da eta horrek kezka sortzen du, baina harro goaz.

Euskal Herriko hautetsi mugimendua eta bere lehen instituzio nazionala milaka hautetsiren bultzadarekin sortu zen eta horren defentsa egiten ari gara. Bestalde, Udalbiltza euskal nazioaren aitortzaren alde lan egiteko sortu zen, Euskal Herriari eszenario demokratikoa eta pakezkoa emateko. Hautetsiok lan instituzional hori egiteagatik auzipetu nahi gaituzte, eta ezin dugu horretan inola ere amore eman. Gure Herriaren errealitateari dimentsio instituzionala eta demokratikoa eman behar zaizkio, hortik bakarrik etorriko dira demokrazia, justizia eta bakea.

- Auzi hau Egunkaria auziaren antzekoa da zenbait puntutan. Horrek itxaropentsu izaten uzten dizue?

Estatuak beti zigortzen du bere esanetara makurtzen ez den oro, eta arinkeria da esatea Egunkaria auzia onik amaitu dela. Ez, Egunkariako auzipetuek, proiektuak eta euskalgintzak zigor handia jaso zuten. Geureari dagokionez, zigorra aurretik jasotzen ari gara eta badakigu zigorra jasotzeko prestatu behar dugula. Kontua ez da

zer egin dugun, Udalbiltzaren garapena oztopatzea baizik, hautetsi abertzaleak izutzea, Nazio izaerako azpiegitura instituzionala eta demokratikoa berriz sortzeko aukera desegitea...

- Zein froga aurkeztu du akusazioak?

Ez dute frogarik behar. Estatu zapal-tzaile batentzat gure existentzia bera da delitua. Euskal Herria badela esatea bera da delitua. Kasu honetan frogak bigarren mailakoak dira. Adibide bat emango dizut, Herri Plataformak osatzea leporatzen ziguten atxilotetak egin zituztenean. Salaketa hori desagertu egin da epailearen ondorioetatik, baina, salaketa horrekin auzian sartu zituzten pertsonak, Udalbiltzarekin loturarik ez zutenak, hortxe jarraitzen dute. Baina gure frogak ukaezinak dira, lan instituzionala egiten genuen, geuk eta beste hainbat zinegotzik eta besterik ez.

-Xabier ETAko kide izatea egotzita epaitu zuten 18/98 auzian, eta egun kondena betetzen ari da. Egunkaria auzitik atera egin zuten, pertsona bat ezin delako gauza beragatik bi aldiz epaitu. Udalbiltzaren auzian, ordea, bigarrenez epaituko dute. Zein irakurketa egin duzu?



Ez naiz ni Auzitegi Nazionaleko epai-leen buruan jarriko, baina Xabierrri, aipatu kiderekin batera, Nazio Eraikuntzara diru-laguntzak bideratzen lagundu izana ere leporatzen diote, hau da, delitu ekonomikoa egin izana Zuberoaren garapen-sozio ekonomikoa laguntzeagatik edo Euskal Herriko estatistika liburuen argitaratzea sustatzeagatik. To gaiztakeria!

- Zer eskatzen duzue?

Auzipetzea bertan behera uztea, geu libre uztea eta, batez ere, Udalbiltza-
ren garapenari eragozpen berririk ez jartzea. Bahitu diguten dirutza itzultzea ere bai, Euskal Herriarena baita. Euskal Herriak Udalbiltza behar duela esanez atxikimendu ugari biltzen ari gara. 2000

hautetsik eskatu dute hori eta eragile ekonomiko eta sozial garrantzitsuak bat egiten ari dira. Gasteizko Legebiltzarrean errespetu hori eskatzen zuen agiria onartu zuten eta laster nazioartean antzekoak entzungo dira. Udalbiltza libre! Hala ere, gure eskaera Euskal Herriko hautetsi eta eragileei zuzentzen zaie, Udalbiltza indartu eta aurrera egitea. Gainera, eta inportantea da esatea, euskal hautetsiok Udabiltza sortzea tradizio historiko bati erantzuten diola. Horri errespetua eskatzen diogu. Hori ezin da kriminalizatu. Euskal hautetsiek antolatzeke eta beren lan instituzionala egiteko eskubide izan behar dute.

-Nola lagundu dezake herritarrek?

Begira, bi era daude, bata agerikoa, agerraldietan parte hartuz, eta bestea,

buruz burukoa, etxean eta lagun artean Institutio Nazional baten beharra zabalduz. Laguntza ekonomikoa ere biltzen ari dira hainbat hautetsi. Eskertzekoa da.

- Nazioartean ere izan zarete babes bilatzen.

Nazio Batuen Erakundean, Flandrian, Europako estatu gabeko herriekin, juristen elkarteekin, eragile politikoeekin, Europarlamentuan... Udalbiltza-
ren auzipetzearekin harridura adierazi digute eta elkartasuna ere bai. Babes horrek erakusten digu bide zuzenean gaudela, beste batzuek ere gure irakurketa bera egiten baitute.

www.udalbiltzaazua.wordpress.com

¡NOTA!

Por el compromiso que el Ayuntamiento de Lezo tiene con el euskera, esta revista municipal se publicará casi en su totalidad en ese idioma. Sin embargo, todo aquel que quiera, podrá recibir el contenido en castellano poniéndose en contacto con el Departamento de Euskera: 943 513476.

Al realizar la solicitud, el interesado deberá facilitar sus datos para poder recibir la revista.

Lezoko Udal Aldizkaria

Diseinua eta erredakzioa: Harman Komunikazioa

Argazkiak: Estitxu Ortolaiz



LEZO ongizate iraunkorra

